

- Entzutekuak: Aritz Laskuraini elkarrizketa
- Kultura: Oporlekuak argazkitan

soraluzeko
hamabostekaria **219.** alea
2010eko apirilaren 16an

PIL-PILEAN



JESUS BEREZIARTUA
Tiriki tiki tauki
panderuan hotsa

LABURBIRA

FILM LABURREN VII. ZIRKUITUA

2010

Apirilak 30 • 22etan zorian

* Bukaeran Urko Mauduit (Odisea Etxaldean) zuzendariarekin solasaldia.

- ODISEA ETXALDEAN**
URKO MAUDUIT ETA JOSEBA SALASARI
2008 (4')
- KAMERATOIA**
NIREK DIRAI KAMERATOIA 2008 (2')
NEGUKO HITZAK KAMERATOIA 2008 (3'20")
- ESAIOK**
ARAKITZ BOSTEROS
2009 (7')
- AMONA PUTZ**
TELMO ESNAL
2009 (9')
- AHATE PASA**
KOLDO ALMENDOS
2009 (12')
- ZORION HUTSA**
ESTIBALIZ ARIZ, ITZARA FRIKO, JIARRE FERNANDEZ,
VANESSA MARTIN, GORKA MONTEIL ETA MILAN ULZERRI
2008 (13')
- NORA ZOAZ**
INDO SANZ
2009 (4')
- CLARK & BORIS**
JOSE LUIS BRARDO ETA INDO GARCIA
2009 (11'30")

topagunea PIL-PILEAN

BIRZIKLATZEKO BEREIZTU

EDUKIONTZI

HORIA

Plastikozko ontziak, latak eta brick motako ontziak

EDUKIONTZI

URDINA

Kartoizko eta paperezko ontziak, egunkariak eta aldizkariak bakarrik

DEBABARRENA
MANKOMUNITATEA

ZURE ESKUETAN DAGO BEREIZTEA, BIRZIKLATZEA GUZTION ESKUETAN DAGO

**EGOITZ UNAMUNO****ARITZ ARIZAGA**

ASTE SANTUKO HEGIAK

Aupa Aritz, Zer barri? Deskantsatu dok bape Oporretan? Nik pixkat bai zorionez. Mendi buelta batzuk, irakurri, pelota partidua, parrandaren bat, plaia eta eguzkixa... Ez nok oso urrin juan baina etxian etxuat denbora asko pasau.

Arantzako aterpetxian pasau genduzen hiru bat egun. Ze paraje edarrak!

Batera eta bestera begiratu eta danian mendixa. Bertizko parke naturala, Elizondo, Arantzako tabernak... danak pasatu jittuau. Baina irakurtzeko asti pixkat behartu juat. Besapian eruan najuan Imanol Murua kazetarixak argitaratu berri daben "Loiolako Hegiak" liburua. Bi-hiru golpetan iruntsi najuan. Azkenengo bake prozesuaren inguruko liburua dok eta irakurtzen dabenari emongo jotsak zer pentsatua. Zela amaitzen dan kontatu biharrik etxakat, ezta? Bueno, oindio ez dok amaittu.

Eta Arantzatik zuzenian binakako finalera. Aberrri Egunera juateko astirik be ez genduan hartu. "Emoixok Lasku! Plaentxia hirekin" pankarta mitikua eta pare bat ikurriña hartu eta Ogetara. A ze orruak etara genduzen! Etxarriarrak gogorrrak dittuk baina plaentxiarrak be ez ginduazen atzera geratu. Azkenera arte eutsi gontsan esperantziari baina ezin. Txurrukan eta Gilan astindu genduazen gero pena danak Aritzekin batera. Eta kitto! Hurrenguan gehixago eta hobeto.

Azkenengo egunetan eguzki pixkat hartu juat Hendaiaiko plaian eta berriz egunero ko jardunari heltzeko gertu etorri nok! Hi zetan ibili haiz, Aritztxo?

“

**Etxarriarrak
gogorrrak
dittuk baina
plaentxiarrak
ez ginduazen
atzera geratu**

Egoitz Unamuno

**Zorionak
heldu dan
lekura
heltziazarren!**

Aritz Arizaga

”

Iepa Egoitz! Hiria irakurritta pozten nok! Gauza asko ein dittuk, eta ez makalak! Neuk be etxian ez juat denbora askorik emon. Holako opor astietan neretzako onena naturiaz gozatia dok. Ikusi, ezagutu eta gozatu. Mendixan badok, primeran, plaian txarto ez.

Laskun partidua pena bat izan zuan. Azkeneko Gonzalezek eta plaentxiarrak txapelketa ona jokatu eben, baina Xala ikaragarri ibili zuan aurrekalde horretan. Neuk partidua telebistaz jarraitu najuan eta plaentxiar dezente azaldu zittuan, animatzen eta ambientia sortzen. Plaentxiarra oso ondo ikusi najuan eta azkenearaino goixari eusten. Hori asko dok. Zorionak heldu dan lekura heltziazarren!

Horren ostian, egun batzuk pasatzera juan nok Asturiasera. Picos de Europa inguruko herritxo bateko kanpiñian egon ginttuan neu eta kuadrillako batzuk. Ze paraje! Mendi senduak dittuk hanguak, dana harrixa. Plaia ingurura juan ginttuan haura ikustera, Covadonga ko lakuak eta baitta ermita inguruak be ezagutu giñuzen eta azkenik Careseko ibilbidia eittera jun ginttuan. Hori bai politta! Eta ondio ez juau ein pentsauta eguan dana, berriz be bueltau biharko gaittuk. Etxaok oso urrin juan biharrik paraje zoragarriak ezagutzeko. Hi ez haiz Euskal Herritik urten eta neu ez nok kotxez hiru ordu baino gehixao urrindu.

Oin berriz betikora bueltia, baina ezin nok kejau, Gasteiz aldiari badakik, San Prudentzio gertu jaok. Hasi adi hurrengo oportretako zeoze pentsatzen. Laster baino lehenao, bertan izango dittuk eta udako oporrak! Ondo pasau!

Goguan hartzeko

“Gero izateko esperantzak ere zerbait balio du!”
Eskualduna astekaria



2010eko
aurrekontua

GUTUNAK

2010 urterako Soraluzeko Udalak aurrekontua izango du. Ohiko berria izan beharko lukeena, herriaren historian aurrekontua beti izan da, albiste bihurtu zaigu, aurreko bi urteetan ez baita aurrekontua onartzerik izan. Berri pozgarria benetan gure herriarentzat eta udalean hainbeste lan egiten ari diren langileentzat.

Aurrekontua onartzea EAJren abstentzioak ahalbidetu du eta eskertzekoa da Soraluzeren aurrerabiderako erantzunkizun maila hori erakustea. Hala ere gure harridura azaldu nahi dugu ez dugulako ulertzen aurreko urteetan zergatik ez den posible izan aurtengo erantzunkizun maila bera mantentzea. Izan ere, Udal Gobernu Taldeak aurreko urteetan bezala jokatu baitu aurrekontuekin. Jarrera zabala izan dugu negoziatzeko eta proposamen asko onartu dira, jakin baitakigu zeinen garrantzitsua den udal aurrekontua onartzea. Aurten beraz posible izan da. Zergatik ez orain arte?

Aurreko urteetan aurrekonturik ez izateak zenbait gai garrantzitsu atzeratu ditu, baina lan handiagoa eskatu duen arren, azkenean horiek martxan jartzea lortu dugu. Futbol zelaiaren kasua da behar bada aipagarriena. Dena den, aurten aurrekontua dugun arren, horrek ez du berez esan nahi diru gehiago izango dugunik gauzak egiteko. Krisiak gogor eragin dio gure Udalari ere.

Soraluze ez da herri aberatsa, denok dakigun moduan. Horregatik are garrantzitsuagoa da elkarlana sustatzea eta guztiok gauzak hobetzeko aurrera bultzatzea. Udal Gobernu talde hau hasieratik egon da elkarlanerako prest eta horrela jarraituko dugu legegaldi hau bukatu arte, gure herriaren ongizatea baita gure lehentasuna. Benetan espero dugu azken bi urte hauetan gertatutakoa inoiz ez errepikatzea, herriaren eta herritarren onerako.

Udal Gobernu Taldea

Erasoen aurrean erantzun kolektiboa

Heldu da udaberria guztiontzat ezagun diren H sintomak lagun: ezinegona, odola borbor, oihukatze gogo biziak... Ezin lasai egon. Baina Soraluzeko neska askoren ezinegona ez da udaberriak sortua, zenbait gauza argi esateko gogo baizik. Nazkatuta gaudela oihukatu beharra daukagu! Onartuegi dauden jarrera eta komentarioez nazkatuta. "Lasai neska, ez da hainbestearainokoa!" Zenbaterainokoa da ba?

Ohitura kontuak! Emakumeen gauzak! Min ematen duen egoera baten aurrean ezerosotasunak orokorra beharko luke eta ez "emakumeen gauzak". Errespetu falta bat, errespetu falta bat da guztiontzat. Gainera, errotik moztu ezean erasoak errespetu faltatik harantzago iristen dira gehienetan eta hala gertatzen ari da. Arazoak izan ditugu gure denda eta tabernetan, gure guneean "agresibo" eta "baboso" jarri zaizkigu eta ez dugu guztiok batera eta aho batez egoera moztu asmatu.

Ez dugu gureak ere badirela uste dugun guneean inork bazter gaitzan onartuko. Ez dugu biktima pa-

perik jokatu nahi, ez baitugu gure burua horrela ikusten. Gure burua zaindu eta defendatzeko gai gara, baina egoera mozteko nahia guztiona dela sentitu nahi dugu. Ez dugu zakil eta alu arteko gerra batera deitzen. Ulertu nahi ez duen edozeini leku horretan emakumeen aurkako erasoak inork ez dituela gustuko ikustaraztea da nahi duguna, eraso orok erantzuna izango duela argi erakustea.

Nazkatuta gaude eraso bat zer den edo zer ez den eztabaidatzeaz. Erasoa norbait erasotua sentitzen denean hasten da. Erantzuna desberdina izan daiteke, izaera, momentua, egoera edo umorearen arabera eta erantzun hori besterik gabe gutxietsi edo zalantzan jartzeari eraso bera gutxietsia deritzogu. Garrantzia kentzea, gauzak aldatu nahiari aukerak ixtea. Gauzak aldatu daitezke, aldatu egin behar dira, ohituegi egon arren. Ez dugu inor salbatzera datorren heroirik nahi, horrelako jarreraren aurrean erantzun kolektiboa baizik.

Irati Treviño, Amaia Amor, Ainhitze Elizburu, Itxasne Elizburu eta beste neska pila bat!

Pil-pilean Kultura Elkarteak ez du bere gain hartzen aldizkari esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Pil-pilean

Argitaratzailea: Pil-pilean Kultura Elkarte. Errabal kalea 15- 1., PK 27 - 20590 Soraluze, Gipuzkoa **Telefonoa:** 943 75 13 04 **e-maila:** aldizkaria@pilpilean.com **Erredakzioa:** Leire Iturbe eta Miren Narbaiza **Erredakzio batzordea:** A. Unamuno, E. Unamuno eta A. Madrid, L. Iturbe eta M. Narbaiza **Publizitatea:** Ane Larreategi **Logotipoa:** Pablo Galarraga eta Silvio Vaz **Diseinua:** Silvio Vaz **Maketazioa:** Iñigo Uribebarria **Inprimategia:** Gertu Koop. **Banaketa:** Pil-pilean Ekoizpena, 2.000 ale **I.Z.K.a:** G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Saiburuordetza



SORALUZeko
UDALA



GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIA

bittartetik

Karmele Ortueta
Bizitzako ittulan III

Amets egittia debekatu egin bihar doskuen honetan, Frantzia burka eruatia debekatuko dabela entzun dot. Hemen ez gara arrazista baina inori ez jat entzun asmo horren kontrakorik. Neri ez jata ondo pentsatzen, edo ahaztu egin jaku gure herri Santu honetan be, erdi aruan emakumiak puntadun pañueluekin ibiltzera bihurtuta zerela? Ondio goguan daukat elizara juateko mantillia buruan genduela juaten ginanekua, azukar uretan busti ondoren plantxatu eta dotore asko juaten ginanekua; batzutan erlijinuagaittik eta bestetan gizonen menpekotasunagaittik. Hola izan da eta da, gaur egunian be, ahua betian liberatuta gaozela esan arren, zenbait emakume doiazen bezela, ez daittezela etorri esaten beren buruakin ondo sentitzeko doiazela, ia tangakin esate baterako. Balitteke atzeko arrastua garbi mantentzeko izatia. Eta hanka danak izurratuaz metro erdiko takoidun zapatekin behatzak be lekurik ez daukela eruan bihar dittuenian beren buruekin gustora? A ze gustua! Hori liberatuta egotia da? Hemengo gizonak txapela eruan dabe eta eruaten dabe, baina ez da berdina, honek "txapeldunak" dira eta elizara doiazenian be txapela kentzen dabe. Ia Maialen Lujanbiongaittik betirako ikasten dogun txapela buruan jarri aurretik zala "txapelduna" eta emakumiok asko daukagula erakusteko. Aldarrikatzera etorri jakulako zorionak berari! Aupa Maialen!

Aritz Laskurain, Binakako Finaleko txapeldunordea

Noiz eta zela hasi zinan pelotan jokatzeko?

7 urtekin eskolako txapelketa batian izan zala gogoratzen dot. Gustatu eta Soraluzeke Pelota Eskolan izena emon neban. Profesionalki 2002ko ekainetik nabil jokatzeko Aspen.

Pelotari profesionala izateko bizi leike?

Maila onian egon ezkerok bai. 36 edo 37 urte arte pelotarixa izatia espero dot, baina horretarako fisikuak lagundu egin bihar dosta. Ekonomikoki, erantzuna be baiezkoa da!

Maila ona izateko, zela gertatzen zara?

Nere entrenamenduak arlo teknikuak edo frontoiko lana eta arlo fisikua edo gorputza lantzeko lana daukaz. Lelenguan indarra eta teknikia lantzen dittut Etxaniz entrenatzailiakin. Bestia bakar-kako lana da pelotari bakoitzak bere helburuak dittualako.

Zela baloratuko zenduke txapelketa?

Nik behintzat gozatu egin dot egin dotenakin. Hasieria izan zan gogorrena, Gonzalezekin be moldatu bihar izan nebalako. Baina zailtasunak eta pronostikuak kontranz izanda be aurrera egin dogu, seguruenik, gure aukeretan si-

nistu dogulako. Adarraigang finalerako txartela etxetik kanpo eta lagunez inguratuta lortzia benetan berezixa izan zan.

Ezin kexatu Laskurainen Lagunartiaz.

Ez... eta eskertzeko asko daukat! Laguntza haundikua da sarrerak eta autobusa antolatzeko momentuan eta oso polita da egindako esfortzua modu horretan eskertzia. "Emoixok Lasku!" atakerako oso aproposa da. Animuak emoten onenak dira! Hori bai, hurrenguan omenaldixa udaltxeko balkoian egittia baino, nahi-xago dot jende artian egittia...



"Pronostikuak kontranz izan arren, aurrera egin dogu gure aukeretan sinistu dogulako"

Hurrengo erronkia zein?

Udako torneuak dira nere hurrengo erronkak. Hiriburuetako jaixetan antolatzen diran partidu nagusixetan parte hartzen dogu.

Gustoko daukazun pelotari bat?

Bi aittatu bihar dittut, Titin eta Barriola. Kantxan oso konpetitibua dira.

Amaitzeko, betetzia nahi dozun amets bat?

Bizitzan eta pelotan oin arte moduan jarraitzia. Daukatenakin disfrutatzen jakitzia da garrantzitsuena.

MENDIZABAL
okindegia

Kalebarren 10
T. 943 75 20 91

Baltegieta 6
T. 943 75 13 99

SORALUZE

SAN ANDRES
ITURGINTZA

Iturgintza, gasa, eta berogailuak sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behea T. 943 75 16 46

Deba ibaia Bergarako poligonoko hondakin isuri batek kutsatu zuela uste dute adituek



Forja lantzen duen enpresa batek kutsatu zuelakoan daude.

Martxoaren 26an Deba ibaia Mohibainomarroia gopasatu zen Sorluzetik. Ura agentziako Agustin Almandoz ikuskatzailearen esanetan Bergarako San Juan auzoko poligonoko enpresa batek isuritako hondakin batek eragin zuen erreka kolore ilunagoz igarotzea. Urak aztertu ostean forja lantzen duen enpresa bateko oxidoak ibaia kutsatu duelakoan daude. Oraindik Deba ibaia kutsatu zuen enpresa zein den ez badakite ere, jarraipen estua egiten dihardutela esan du Almandozek, ibaia kutsatuta agertzen den lehen aldia ez delako eta jakin badakitelako zein ordutan eta zein egunetan isurtzen dituzten enpresek hondakinak Deba ibaira. Kalteen enpresa erantzuleari isun larria ipiniko diotela ere aipatu du Ura agentziako ikuskatzaileak.

Misio taldeak postua ipiniko du Haitiri laguntzeko

Soraluzeko misio taldeak Haitiko lurrikarak kaltetutakoan alde lanean dihardu. Eguen honetan Basatxerri enpresak emandako pate latak salduko dituzte. Kontzejupean egongo dira goizez, azokaren ordutegiarekin bat eginez.

Jon Anzaren heriotzaren inguruko mozioa onartu da

Eguazteneko udalbatzarrean aldeko 3 bozka (Ezker Abertzalea), kontrako 3 (PSE-EE, PP) eta 5 abstentziorekin (EA, EAJ), Ezker Abertzaleak Jon Anzaren heriotza argitzeko eskatzen zuen mozioa onartu egin da, alkatearen, Jose Luis Arizagaren kalitatezko bozari esker. Bestalde, zapatuan Donibane Lohitzunen 17:30ean egingo den manifestaldira joateko deialdia ere egin du Ezker Abertzaleak. Kotxe geldialdia, Erregetxean izango da eguerdiko 12:00etan.

Kooperatibaren Batzar Nagusia

Soraluze kooperatibak Batzar Nagusia egingo du apirilaren 22an kapilan. Hitzorduaren lehen deialdia iluntzeko 20:30ean izango da eta bigarrena 21:00etan. Batzarra iazko aktaren irakurketarekin hasiko da. Besteak beste, diru-kontuen gora beherak aipatuko dituzte, pasa den urteko memoria egin eta 2010eko aurrekontua zehaztuko dute.

Hamahiru lagun zoru pelbikoa lantzeko ikastaroan

Udaleko Emakume Batzordeak antolatuta zoru pelbikoa lantzeko ikastaroa egin dute 30 eta 58 urte arteko hamahiru emakumek. Guztira 12 orduko ikastaroa izan da eta sexu organueta giharrak landu eta indartu dituzte. Parte hartzaileak oso gustura agertu dira eta berriz ere errepikatuko dutelakoan daude.



Iturria: Etzoz Larrainaga

Zuzenketa

Pil-pilean 218. alean Estaziño kaleko barandaberriarengaineko albistean argitaratutakoa zuzendu nahi dugu. Baranda ipintzeko bizilagun guztiek eskatu dute, baina, ez dute hormatik distantzia batera ipintzeko eskatu, baizik eta hormaren kontra "ibilgai-luak bertatik pasa ahal izateko".


PASCUAL CHURRUGA, S.A.
 Hotzian eta beruan
 jotako tornilluak
 Errekalde 21
 20590 SORALUZE
 T. 943 75 00 06
 T. 943 75 16 00
 F. 943 75 24 61


ARRANO
 taberna
 etorri eta gozatu
 giro euskalduna eta sanua

etxera

Furgoneta bat ibaira

Astelehen goizeko 11:30ean Ford Transit matrikula berridun furgoneta Deba ibaira erori zen Soroluzeko sarrerako industrialdean. Zubiko barandila aurrean hartuta eraman zuen furgonetak eta ibaira jausi zen. Segituan ailegatu ziren Ertzaintza eta Suhiltzaileak eta ibilgailuko gidaria atera zuten ohatilan eta Mendaroko Ospitalera garraiatu.

**Bularreko minbiziaz jarduteko hitzaldia**

Katxalin, Bularreko eta Ginekologiako Minbizia duten Emakumeen Elkar-teak, Soroluzeko Udalarekin elkarlanean bularreko minbiziaz berba egiteko hitzaldia antolatu du apirilaren 20an, arratsaldeko 18:00etan kiroldegiko Zinean. Hitzaldia Donostiako Institutu Onkologikoko Arrate Plazaola dokto-reak emango du eta diti minbiziaren arrazoien azterketaz, tratamenduz eta prebentzioaz jardungo da.

Udalekuetako izen-ematea zabalik

Euskal Herriko Bertsozale Elkarteko bertso udalekuak bost egoitza ditu eta izena maiatzaren 5a baino lehen eman behar da, internetez www.bertsozale.com helbidean edo 943 69 41 29 telefonora deituta.

Euskal udalekuak adin tarte gutzientzat

Abaigar, Goñi eta Bernedoko udalekuetan 7 eta 16 urte bitarteko gazteek hartu dezakete parte.

Telefona: 943 72 46 28 (arratsaldeko 18:00etatik 19:00etara)

Posta elektronikoa: posta@euskaludalekuak.org

309.159 euro herriko zoladura lanetarako

Apirilaren 6an hasi ziren Plaza Zaharra eta Goiko kaleko zoladura lanak. Udalak jakinarazi du lan hauekin amaitzean Etxaburueta kalean hasi eta Arrano Elkartea parera arteko lanekin hasiko direla. Irailerako obra osoa eginda egotea aurreikusten dute eta guztira 309.159 euroko inbertsioa egingo du Udalak zoladura lanak egiteko.

Bi igogailu berrien lanekin hasi dira

Atzo hasi ziren bi igogailuen lanak. Bata Gabolats kaletik (Gipuzcoano paretik) Saciako babes ofizialeko etxeetara iritsiko dena; bestea, Estaziñotik hilerri pareraino. Modu horretan, herriarrei Estaziño eta Zeleta auzoetara irisgarritasuna hobetu nahi zaie.

Hasiera batean lehen igogailua Erregetxetik ipintzeko asmoa

bazegoen ere, Udalak erabaki du bertan zer egingo den jakin gabe dagoenez igogailua Gabolats kaletik gora egitea. Goitu Erainkuntza enpresak dulanakegiteko ardura eta guztira 363.015 euro inbertituko ditu Udalak. Lanak Gipuzkoako Foru Aldundiak finantzatuko ditu %100ean.



Herriko baserriarrek auzoetako ordezkariak aukeratu dituzte



Soroluzeko baserriarrek Sudaleko zinegotzi Roke Akizurekin bildu dira nork bere auzo alkatea izendatzeko. Txurruka auzoan Iurdana Laskurain izango da ordezkaria, San Andres auzoan Roman Maiztegi, eta Iruren Aitor Oregi. Ezeziko

ordezkaria aukeratu aurretik al-dizkari honek edizioa itxi egin behar izan du. Baserriarren eta udalaren arteko harremana lantzea izango da ordezkarien zeregina nagusia. Bozaz aukeratu dituzte eta bi urtez izango dira auzoko ordezkari.



Ikur honek albisteari buruzko informazio gehiago **Plaentzia.com** webgunean duzula esan nahi du. Argazki gehiago, bideoa, informazio sakonagoa...

SEGURTASUNA

GILTZAK, S.L.
SARRAILAGINTZA

K21

- Era guztietako sarraila eta segurtasun kutxan **salmenta** eta **mantenua**
- Segurtasun eta iheserako **instalakuntzak**
- Sarrailen **egokiponak**
- Era guztietako giltzen **kopiak**
- Trabatutako atek **askatzen** ditugu

8.00etatik 24.00ak
larrialdiko zerbitzuak
943 70 13 91

Arragueta 3
20600 EIBAR
GIPUZKOA
T. 943 70 13 91
F. 943 20 86 99
giltzak@giltzak.com
www.giltzak.com

Merkatu Plaza
20590 Soroluze

t. 943 75 24 40

egunerako arraina eta konjelatuak

Juan Mari arraindegia

Jexux Bereziartua, panderojolea

Debagoieneko Trikitixa Eguneko omendua

“Atzamarrak apurtziar egon naiz askotan”

Kalian ikasitako panderojolia da Jexux. Koplak kantau, txistua jo eta panderua ezkerreko eskuan hartuta pozik bizi da. Lehengo erromerixetan eta kalejiretan trikitixa doinuak entzuten ziran guztietan han egoten zan. Musikia barrutik bizi daben eta umore ona aldian daroian plaentxiatar honek omenaldixa jasoko dau Trikitixa Egunian.

Noiz hasi ziran panderua jotzen?

Oin hamalau bat urte serixo samar ekin notsan. Baina gaztetatik gustau izan jata musikia eta erromerixetako girua. Betidanik esan doste oso belarri ona daukatela. Zabale anaiak herrira etortzen ziranian esaten zosten, “soinua joik Jexux!”, eta eurak tarteko zirala ikasi neban panderua jotzen, neure kasatara.

Ze plazatan?

Herrixan jo izan dot beti. Badakizu, kalejiratan eta jai-xetan. Zabale anaiak etortzen ziranian nik Pablo Arrua-barrenakin jotzen neban, berak soinua eta panderua nik. Egunguztian jotengenduan. Gero, Osintxura jua eta han be segidu egitten genduan, jo eta jo. Han esaten zoskuen, “zuek etaratzen dozue armonixia! Egunero etorri bihar-ko zinakie!”. Pozgarrixa zan holako berbak entzutia.

Ze pieza kantatzen zenduezen?

Ba danetik pixkat. Zabaleta eta Roberto trikitilari-xana, “Aizkolarixana”, “Idixana” eta beste batzuk.

*“Irukurutzetatik
Osintxura jua eta
han segitzen gen-
duan, jo eta jo”*

Lehengo erromerixetan zelako girua zeguan?

Lehen dantza gehixago egitten zan, Irukuru-tzetara eta Azkoittira be juaten ginan dantzara. Hamalau urte neukazela, erromerixa batian neska batekin dantzan egin neban eta esan zotan hurrengo astian juaten banintzan berriro egingo genduala dantzan. Baina hurrengo astia aillegau eta ez nintzan agertu...



Zelako sasoiak ziran harek?

Akordatzen naiz Elosuko jaixetan zela Kaxia-nok eta Markos Osintxukuak pasodobliak jotzen zittuen. Behin jendia esnatzeko trikitixa jotzen hasi ginan eta azkenian danak jaiki eta dantzan hasi ziran. Zelako girua ipini genduan! Lehengo trikitixa zan sanua; lehengo biribilletia zan ona. Zaharrak oin ez dabe jotzen. Oin onenatarikuak Tapia eta Leturia dira. Miren eta Bingen be oso onak dira eta Miren izango da igual soinu-jole onena.

Eta panderojole onena?

Neretako Iturbide azkoittiarra. Trikitilari moduan Laja, Tapia eta Maurizia eta Leon.

Panderua asko jo dozu. Baina apurtu zenbat?

Atzamarrak ixa apurtu bai, askotan, baina panderorik ez! Bakarra daukat eta Zabale anaiak erregalautakua da. Oso lagun onak dira.

Herrixan bestelako kontuengaittik be bazara ezaguna. Etxapliurua botatziagaittik esate baterako.

Lau bat urtian bota izan dot etxapliurua herrixan. “Mejor pirotécnico” nitzala entzun izan neban nik! Zezenetan eskuakin botatzen nittuan, balia moduan zerura, eta jendia txaloka hasten zan. Atzaparrakin etxapliuruari heldu eta berak bakarrik egitten zeban gora.

BIOGRAFIA

Jexux Bereziartua. 68 urte, plaentxiatarra, panderojole ezkertixa. Agarreburu basarriko semia, 4 arreba eta 2 anaien artian bera da zaharrena. Soldaduskia bi urtian egin zeban Ferrolen. 28 urtian ostera, arotz lanetan ibili zan etxez etxe Elgoibarren. Lan istripu batek eskumako besua kendu zotsan baina ez panderua joteko grina. Edozein momentutan kantuan, txistuka eta panderuakin lehengo koplaren bat kantatzen dau eta anekdotekin lotu. Jubilatatu danetik pasiuari ibili, berba egin eta Arrate Irratia entzutia gustatzen jako.



Trikitixa eguneko argazkiak eta bideoa astelehenean plaentxia.com-en

Oin jubilauta zare. Zetan emoten dozu denporia?

Erretiratu naizenetik pasiuari ibiltzen naiz. Berba egin eta denporia pasatzen. Arrate Irratia entzutia gustatzen jata, egun guztian eukitzen dot ipinitta. Trikitixak hildakuak berpizten dittu!

Ze musika entzuten dozu?

Euskal musikatik Benito Lertxundi gustatzen jata gehixen. Bestela “Naveira do Mar” pasodoble gallegua asko gustatzen jatan kantatu bat da.

Gallegoz be badakizu?

Zeozertxo bat. Ni Agarreburu basarrikua naiz eta gurian egon zan mutil gallego bat. Hari euskeraz erakutsi notsan nik eta berak neri gallego pixkat be bai trukian. Gero Ferrolen egon nintzan bi urtian soldaduskian. Bi bider jurau neban banderia eta bi desenbarko egin nittuan. Eroso ibiltzen nintzan mendixan eta segiduan igerrizosten basarriko mutila nintzala. Orduan oso arina nintzan ni! 22 urtekin 52 kilo besterik ez nittuan pisatzen. Antxitxikan zela! Arratetik Maltzara 7 minututan egitten neban.

Hilan 17xan omenduko zaittue. Ze sentimendu daukazuz?

Poz haundixa. Hasiara batian Itziar Buruntzak ia juango nintzan galdetu zostanian, ni neguan beste bat omendu bihar zebelakuan. Gero kalia jakin nebanian, guztiz kortauta geratu nintzan. Oso pozik nago.

Zela ikusten dozu trikitixan etorkizuna?

Oinumiak musika eskolan ikasten dabe trikitixa jotzen eta horrek poz haundixa emoten dau. Ni dana kalia ikasitakua naiz, herrixan, kalia. Eskolara juan izan banintz Bethoven izango nintzake!



ZER TRIZTEN DOTSAZU?

Zazpi urte eta gero, 'Egunkaria' auzian epaitutakuak absolbitu egin ditu Audientzia Nazionalak. Bost auzipetuak libre geratu dira zigorrik bare. Oin ostera, zela ordaindu egindako kaltia?

Ze pentsatu jatzu 'Egunkaria' auzixakin pasatu dana?

JABI HERNANDEZ
Segurtasun zaindarixa




Komunikabidiak ixtia ez dago bape ondo. Pertsonak egindako delituengaittik atxilotu leikez baina ez komunikabide bat. Oin berriro zabaldu bihar leukie eta urte honetako kalte ordainak emon.

AITZIBER MAYO
Ur zerbitzuetako langilia



Atxiloketarik ez zan izan biharko. Zazpi urte denbora larregi da eta urte honetan euskera asko sufridu dau. Bateron batek hartu biharko dau atxiloketen eta torturen arduria. Ia egitten dan.

MAITE GOROSTIDI
Irakaslia



Basakerixia izan da. Lantegixa itxi, ehundik gora langileri kalte egin, galera ekonomikuak, osasun aldetik be bai. Kaltia eginda dago eta hori ez dago diruakin ordaintzerik.

EMILIO FERNANDEZ
Jubilaua



Ez zeben itxi bihar. Periodiko bat ezin leike hola itxi. Gainera, oin demostrau dabe ez zeukala ETAKin zer ikusirik. Indemnizazio ekonomikua jaso bihar leukie, oin ia ezin leike besterik egin eta.

IÑAKI IÑARRA
HARATEGI ETA URDATEGIA

Enkarguz eskatutako janaria ere prestatzen dugu

Kalebarren 29
Soraluze
T. 943 75 12 49

MABE
ILEAPAINDEGIA

ESTETIKA
SOLARIUM

Errabel kalea 1, behea
Tel.: 943 75 14 89
20590 SORALUZE

ELIZPE Hortz Klinika

GURE ZERBITZUAK
Ortodontzia ikustezina
Inplanteak

- ✓ DOANEKO BERRIKUSKETAK
- ✓ FINANTZAKETA ZURE NEURRIRA
- ✓ KONPROMISURIK GABEKO AURREKONTUA

ETA ORAIN... LAGUN ARO, PADI (HAURREN ARRETARAKO HORTZ PROGRAMA)

Elizburu 3, behea • SORALUZE • Tel. 943 75 25 67

PLACENCIA
KONTSUMO KOOPERATIBA

Esku eskura! Telf.: 943 75 13 45

“Aquí no paga nadie” antzezlana Zinean

Gaur gaueko 22:15ean Udalak antolatuta Urrup Antzerki Taldeak “Aquí no paga nadie” antzezlana eskainiko du Zinean. Sarrerak 3 euro balio du eta leihatilan salduko dira antzezlana hasi baino ordu erdi lehenago hasita.

Film laburren emanaldia hilaren 30ean

Pil-pilean Euskara Elkarteak antolatuta zazpi film labur eskainiko dira apirilaren 30ean gaueko 22:00etan kiroldegiko Zinean, “Laburbira” izeneko emanaldian. Eskainiko diren filmen zuzendariak euskaldunak dira eta film guztiek 3 eta 13 minutu arteko iraupena dute. Sarrera doakoa izango da.

Filmak:

- “Ahate Pasa” Koldo Almandoz.
- “Amona Putz” Telmo Esnal.
- “Clark eta Boris” JL Barredo eta Iñigo Garcia.
- “Esaiok” Arkaitz Basterra.
- “Nora Zoaz” Iñigo Sanz.
- “Odisea Etxealdean” Urko Mauduit eta Joseba Salaberri.
- “Zorion Hutsa” Itziar Faido, Janire Fernandez, Malen Ulazia, Estibaliz Ariz, Gorka Montiel eta Vanessa Martin.



Gazta egiten ikasteko ikastaroa

Apirilaren 24ean, zapatua, goizeko 10etan gazta egiten ikasteko ikastaroa eskainiko du Josu Gil eibartarrak San Andres auzoko egoitzan. Izena eman nahi duenak, Belarraken egin beharko du, apirilaren 22 baino lehen. Ondoren, bazkaria izango da eta nahi duenak geratzeko aukera izango du.

Oporlekuak giro bikainean

Kukumixo Aisialdi Taldeak eta Atxolin Guraso Elkarteak antolatuta, Soralezko haurrek Aste Santuko oporretan aisialdiaz gozatzeko aukera paregabea izan dute. Oporlekuak programan

Haur Hezkuntzako 2. eta 3. mailako eta Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailako umeek hartu dute parte eta besteak beste, jolasak eta eskulanak egin dituzte DBHko institutuko geletan eta frontoian.



MGS
Mutua General de Seguros

Loli Nieves García

Santa Ana, 13 • SORALUZE
Tel. 943 75 14 57 - 646 522 659
E-maila: mdnievas@mgs.es
www.mgs.es



Etxabe Harategia

Euskal
txabalkia
Bildotsa

Merkatu Plaza 6 - 7 Postuak
T. 943 75 2375



Lakuesta
Optika

Ikusmen arazoaren frogak
eta argibideak
Parafarmaziako produktuak

Santa Ana, 22 C. behea
20590 Soraluze
T. 943 75 30 59





Hirugarrenean etorriko da txapela

Ez zuen txapelik ekarri Ariztezik apirilaren 4an. Hasiera-ko tantuetan parekatuta ibili eta Laskurainek partidu ona jokatu zuen arren, 22-14rekin bukatu zen partidua Ogeta pilotalekuan. 120 inguru ziren Aritzen lagunartekoak eta animoak emate-

ra finalera joandakoak. Txapelik gabe etorri bazen ere, udaletxeko balkoira igota herritarrak txalo joka eta animoka izan zituen. Ondoren Txurrukara igo eta afaria egin zuten 80 lagunek, pilotaria tarteko, parrandan goizaldera arte jarraituta.



Iturria: Carlos de Cos eta Iñigo Uribebebarria.

Joseba Garcia Mendiko Automobilismo Txapelketan

Joseba Garcia pilotu plaentziatarra Mendiko Automobilismoko Euskadiko Txapelketa prestatzen ari da. Lehenengo proba maiatzaren 2an izango du, Udanan. 15ean berriz, Gorlarrara igoera jokatuko du, bi laster-

ketak 4,5 kilometrokoak izango dira. Ekainean beste hiru igoeratan hartuko du parte; Aiara igoera ekainaren 12an, Zumarragara 13an eta Urkiolara 26an. Uztailearen 3an urteroko Arratera igoera jokatuko du.



Iturria: Niko Mendia

135 lagun Cruz del Castillo mendira

Soraluzeko Mendi Taldeak egin du udaberriko lehenengo irteera. Apirilaren 11n, domekan, 135 lagunek igo zuten Arabako Lagran herriko Cruz del Castillo mendia. Giro

EMAITZAK

PELOTA

Gonzalez – Laskurain 14
Xala – Zubieta 22

Titin III – Cecilio 22
Idoate – Laskurain 20

FUTBOLA

Sora (Erreg.) – Antzuola K.E. 2 - 4
Sora (Jub.) – Ikasberri K.E. 3 - 5

* Sora (Erreg.) – Eibartarrak ez zen jokatu.

* Sora (Kad.) deskantsua izan du.

AGENDA

PELOTA

Domeka 18, arratsaldeko 17:00etan, Astelenan
Berasaluze IX – Pascual
Idoate – Laskurain

Herri arteko pelota txapelketa
Zapatua 17, arratsaldeko 16:30ean hasita
Lasarte Oria – Soralueze (Senior, Kadete eta Jubenil)
Lasarte Oriako Mitxelín frontoian.

FUTBOLA

Zapatua 17, 16:00etan Bikuñan
Ilintxa – Sora (Erreg.)

Domeka 18, 11:00etan Estalan
Sora (Kad.) – Elgoibar K.E.

Domeka 18, 16:00etan Argixaon
Urola K.E. – Sora (Jub.)

Maiatzak 1, Estalan
Sora (Erreg.) – Eibartarrak F.T.

bikainaz lagunduta eta baso eder baten itzalean, Arabar Errioxako paisai zoragarriak ikusteko aukera izan zuten.




ZORION AGURRAK



Ametz Alberdi Casares
Apirilaren 12an urtebete!
Zorionak sorgintxo!
Txoko-marrubizko muxu
goxoak. Etxekoan partez!



Ander Gomez
Apirilaren 24an 15 urte!
Zorionak artista!
Ondo pasatu eguna eta
muxu asko etxekoan partez!



Gaizka Madrid
Apirilak 8!
Zorionak potxolo!
Muxu handi-handi bat!
Amaia, Iker, Leire eta
etxekoan partez!



Arkaitz eta Maddi
Apirilaren 20an 37 urte eta
Apirilaren 22an 4 urte!
Zorionak bikote eta ondo pasa Zuen
urtebetetzean! Familia guztiaren partez!



Iker Etxabe Madrid
Apirilaren 11n!
Zorionak Maddi!
Zorionak eta muxu handi
bat! Etxekoan partez!



Maialen Oregi
Apirilaren 5ean 13 urte!
Zorionak politta! Muxu handi
gehien maitte zaitugunon
partez!



Gorka Gallastegi Lete
Apirilaren 18an 3 urte!
Jarraitu orain arte moduan,
jatorra izaten!
Zorionak potxolo!



Ion Varela eta Markel Oregi
Apirilaren 18an eta 13an,
21 eta 7 urte!
Zorionak bikote eta muxu handi
bana etxekoan partez!



Jone Piñeiro Gantxegi
Apirilaren 18an 3 urtetxo!
Zorionak sorgintxo etxekoan
partez.



June Hernandez Muro
Apirilaren 4an 5 urte.
Zorionak Printzesa!!!
Muxu pila bat Irati eta
etxeko guztien partez.



Miren Gallastegi Blanco
Apirilaren 2an 3 urte!
Zorionak politta, etxekoan
partez!



Jon Oregi Gutierrez
Apirilaren 5an 8 urte!
Zorionak eta muxu haundi
bat etxekoan partetik!



Izaro eta Nestor Moya
Apirilak 15ean eta 16an
Zorionak bikote muxu handi
bat etxekoan partez!

jaiotakoak

OIER CID BENAYOS
ENARA CARRETERO DE LA CRUZ



hildakoak

PLACIDIA LOPEZ PUERTAS
M. ROSARIO ORUETA ARIZNABARRETA



LEHTAKETA

- Zein ageri da argazki honetan?



- **Saria:**
Esne Beltza taldearen Esne Zopak CDa

AURREKO ALEKO ERANTZUNA

- **Irabazlea:** Mary Lasky
- **18 eta 22ko apustua**
Xala eta Zubietan aldeko apustua egin zeban Mary Laskyk www.plaentxia.com webgunian. Bere berbetan "girua sortzia-gaittik egin neban apustu hori, emaitza danak berdinak ez izateko".
Laskurainen kamisetia irabazi dau.



ARGAZKI ZAHARRA



Iturria: Iker Makinai

EZKONTZARA JUATEKO GERTU

Argazki hau 1959. urteko irailan 12xan etaratakua da, oin dala 51 urte. Argazkiko lau andrak, Doroteo Retolaza eta Maria Pilar Agirrebeñan ezkontzara juateko gertu dare; mantoi beltza, soineko eta zapata beltzak eta eskularruak jantzitta daukezela, dotore-dotore.

Argazkikuak ezkerretik eskumara: Celestina, Balbina, Candelaria eta Inocencia Arana.



LUIS CASARES PRADO

1996KO MARTXOAK 24
14. URTEURRENA

Urak dakarrena, urak daroa.
Zuk emandakoa, gurekin geratzen da.

Etxekoak



PLACIDIA LOPEZ PUERTAS

2010EKO APIRILAREN 6AN HIL ZEN
95 URTE ZITUELA.

Eskerrik asko zinen bezelakoa izateagatik,
beti egongo zara gure bihotzean. Maite zaitugu.

Senitartekoak bihotzez eskertzen ditu jasotako dolu-
minak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.

Etxekoen partez

MH Makina Erremediaraz Institutua
IMH Elgoibar **ingeniaritza**
 instituto de Maquina Herramientas

HEZIKETA ZIKLOAK eta TXANDAKAKO INGENIARITZA



Ate irekiak
APIRILAK 24
 (11:00etan)

IMH- Elgoibar-Tfnoa.943744132 imh@imh.es-www.imh.es

GAZTELUPE
 taberna
 tel: 943 75 20 81



KM
 Desing
 Diseinua eta Sormena

Poligono Amillage, n° 5
 Tlf.: 943 76 99 85
 20570 BERGARA (Gipuzkoa)
 Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak

Javier Alonso Zelaeta
 MEDIKU ESTOMATOLOGOA
 K.Z. 20.000.434

Jon Azkorbebeitia Txurruka
 K.Z. 20.000.752

HORTZ KLINIKA

Errabal 1 - Barrenekoa 2 T. 943 75 16 13



Soraluzeko Aditz-Taulen Gidaliburua interneten!

Plaentxia.com webgunian topatuko dozu herriko aditz-taulen liburuxkia formatu digitalian.

Eiñik/n klik!

Papereko edizina Pil-pileanen edo Udaletxian eskuratu zeinke 3 euron truke.
 Pil-bazkide bazara, duan!

PIL-PILEAN



ELGOIBAR ARREITURRE B.H.I. 2010/2011 IKASTURTEA



AURREMATRIKULARAKO DATAK: Maiatzaren 3tik 12ra



ELGOIBARKO INSTITUTUA
Elgoibar Arreiturre B.H.I.
Arregitorre 2
Tel.: 943 74 83 97
E-posta: 013431aa@hezkuntza.net
www.elgoibarbhi.net

BATXILERREKO ESKAINTZA

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA

Osasun zientziak

Zientzia eta teknika

Teknologia (zikloetarako)

HUMANITATEAK ETA GIZARTE ZIENTZIAK

Gizarte zientziak

Humanitateak



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA ZALAZ

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIBERTSITATEKIN ENBESKUNTZAN